

OGIAREN ARTISAUTZA

Xarelan

85

OGIAREN ARTISAUTZA

SARRERA

Igandero joaten ginen amaren herrira amona eta haren haizpa den Izeba Ba (Barbara) ikustera. Oso heduak zeuden eta haiengandik oroigarri bizi bat gorde nahi genuen, eta bideokamararik ez genuenez haien solasa grabatzea bururatu zitzaion amari.

Denbora haietan lau mende zituen sukaldea aldatzen hari ziren eta labea botatzerakoan, sabaieratz zihoan zulo bat agertu zen, orduan jakin nuen hura ogia egiteko labea zela, eta han ogia eginten zutela lehenago.

OGIAREN ARTISAUTZA

-Tia Ba, zu txikia zinenean, ogia saltzen al zuten ?

-Bai, galera haundi beteke etortzen zen mando,bi mandoki, gizon bat haundie, Joxe zitzaiona, ta uzten zuen, uzten zuen ileteko atarien galera, ta harara joaten ginen, ogia eroatera, horrengana astean biegunez.

-Orduan, zuk nola dakizu ogia egiten ?

-Ama ikusi te, ikasi nion nola eitten zuen.

-Eta nola egiten zuen?

-Ora mahien pahatu irin monton bat, erdi-erdien, leku kuskoa bat egin ta hara bota orentza ta gatza ta ure, ta irine, irine ore pixke-pixke-pixke nahasiz-nahasiz-nahasiz eskuekin, jartzen zen masa bat einik. Ta, gero, rato bat uzten geninon maindirean bildu, te lo eittera ta gero lo egiten zuelaik artze egiten zen, masa hore eta, orduen egin oie banaka-banakan, eta bitartean labea berotu, ta berotu zelaik garbitu, garbitu labia, leitsu zekite.

makil bateki, ta gero, labiendaien aldien bat aldien bat sartu labian, ta ordu terdin inguruko ola erretzen ziren, erre do egosi ta gero atra ta zortzi egunteko ogie, nahikoa.

-zer da letsutze?

-berdure bat, sesien ateratzen zena, berdure bat. Ta harrekin, makil beten puntetan itxezea bezala lotu ta errekin garbitzen zen ogie sartzeke labia, garbitzen zen. Nesko honttakoi eitten nituen opilek, mezara joateko olatak, apezandako.

-Zer da olata?

-Bolotxo bat, ogi masakin ta ogineinen .

-Ogi berezia al da?

-Olantza ta busten zen, opiltxoa orinenen aldien masa egin asteko ta horrek geatzen zuen ogie, masa.

-Ogi berezia al zen?

-Zein propie galdeitzen duen . Masa beretik egine, baino txikitxoagokoa, eginen genuen ogie.

-Zenbat pisatzen zenuten ogia?

-Bi kilo ta erdi hiru bittattoan, hola.

-Ze forma ematen zion ogiari?

-Kaskoa erredondoa ta azpie zelaie .

Eta zergatik forma hori?

-Zergatik eman behar zinun, patu behar zinun nolabait!

-Botatzen zenion gatza edo patata egiten zenuen ogiari ?

Botatzen nion gatza bai, gatza.

-Egiten zenuen ogia garagarrekin?

(A)- Ez.

Izeba ezin zenez etxetik atera beti ibili da bera sukaldea eramaten, eta horregatik egiten dizkiot berari galderak. Hala ere amona, lagundu nahian aritzen zaio gauzak bergogoratzen, baina amona saltsera da eta izeba aserretzen da zenbaitetan eta ez die bere hitzei kasuik egiten .

-Ez

(A)-Behin ere ez

-Ez, ez, beti irin utsekin . garien irinekin

-Bai.

-Egiten duzue irina artoarekin?

-Ogi egiteko ez, artoa eittekon bai, maiz irinekin

-Egiten dira taloak arto irinakin?

-Bai, bai, maiz irinekin egiten dira taloak. Inguru hontako herrietan denetarik

-Ta nola ekartzen zuten garia?

-Astoan edo bizkerrian

-Ba al zen kotxerik ?

-Ez bizikleteik ere! kotxea! aja! Gaixua!

-Artoa utsik jaten dira edo beste gauz batekin?

-Artoak jaten dire esneaki, gaztari te ezteki. Gehiago ez nahi oroitz.

- Txistoraaki eta urdaieki. Neri txistarrakin eman zidaten
han herri hartan.

-Ta? Nola egiten da?

-Irine pahatu hola mahaien ta harri egin lekutto bat bota ure epei pixko
bat eta gatz pixko bat eta ibiliz-ibiliz egiten da...

-Masa

-Masa, masa bat

-Ta gero eitten da botelle batekin zabaldu hore

-Masa hoi eitten dela aski ggogoratu, trozoka-trozoka hartu te ein...

-Banaka banaka

-bai, botila batekin liso-liso pahatuz erredondo-erredondoan.

-Nola zaionan leku harrei...

-Ta

.....-Hura mahaien jartzen zen

-Ta gero, gero burni harei, talaburnie. Talaburnien.

-Talaburnie eta hura! Han pahatzen dan harrei, ohol harri...

-Artola!

-Artola. Pahatu artolan.

-Banekien ba!

-Bai, artolan. Eta gero laburnie azpien eta supenien zabaldu, ongi, garbi-
garbie.

-Garbi-garbie.

-Ta gero bota haratra

-Ta, sartu harara, suen eh!

-Bai.

-suku txapan. Ta lenbixikoit pahatu...

-Brasa baten.

-Tela, tele bitartio.

-Bras, brasatxo batzu

-Brasa batzu paatu denetik, ta erreitten zitzaioleik tela talo harrei, hautsekin tapatu hautsekin tapatu hore! Eta majo jartzen zen egoseik eta erreik, gero ia ein zen kendu hauts hore ta ola ein burtzinekin...

-Palakin.

-Ia eginik ote zeon aski, ta einik balimba zeon atra ta garbitu te, artoa ta esnea, menuda gauze! horie erreiten indarra horrek bat.

-Saltzen zenituzten taloak?

-Ez, jan ala ein te saldu ez.

-Zenbat irauten zuen taloak?

-Bizpire egun . Bizpire egunez ongi egoten zen esneakin jateko

-Meriendatzeko

-Zenbat aldiz egunean jaten zenuten ogia?

-Artoa? Neguen hiru aldiz edo eta uden lau aldiz edo hola

Zinta hau duela zazpi urte dago grabatuta , beraz bederatzi urte nituen. Aurten berria egin nezakeen baina amonek ez lituzkete gauzak ain ongi gogoratuko . Bestalde zinta bera obe nezake, baina orduan ez litzateke nik hainbeste maite dudan oroigarri bera izango .